



Europar Botikaren Agentzia eta Banku Agintaritzaren egoitzak lekualdatu ditu Europar Batasunak

Brexit-aren ondorioz Londres hiria utzi behar duten Europar Botikaren Agentzia eta Europar Banku Agintaritzak Amsterdamera eta Parisera lekualdatu ditu Europar Batasunak (EB), hurrenez hurren¹. 50. artikulua baita osaturiko Gai Orokorren Europar Kontseiluko bilera baten ondotik, kontseilu-kide diren Europar Gaietako ministroek, Erresuma Batukoa ezik, hiru orduko bozkaketan erabaki zuten zein izango zen Botika Agentziaren egoitza berria, zeinak 900 behargin dituen. Europar Banku Agintaritzaren lekualdatzerako bozkaketa ordu eta erdian gauzatu zen, eta agentzia honek 150 langile ditu.

Botika Agentzia hartzeko hautagaiak 18 hiri ziren, eta Amsterdam azken fasean gailendu zitzaion Milango hautagaitzari. Hain zuzen, lehen itzulian Europar ekialdeko hiriak baztertzeak, Bratislava, Bukarest edo Sofia artean, eragin zituen lehen arrakalak. Bartzelonako hautagaitza ere zerrendatik kanpo geratu zen eta Kataluniako jazoeren ondorio izan ez ote den eztabaida piztu du Espainiar estatuko iritzi publikoan.

2011. urtean finantza krisia erregulatzeko xedez sortu zen Banku Agintaritza artatzeko hautagaiak, berriz, 8 hiri baino ez ziren. Egoitza berria Parisera bideratu dute, Dublin azken itzulian kaleratuz. Frankfurt alemaniarra kokatu zen Banku Agintaritza erakundea jasotzeko hiri faborito gisa, baina kanporaketa parekatu batek Dublin eta Paris buruz buru jarri zituen, 13-13ko bozketa berdinketarekin. Frantziar hiriburua gailendu zen ausaz.

Londres, galtzaileetan nagusi

Behatzaile askoren iritiz, agentziok birkokatzeko eta berriz ere martxan jartzeko aukera paregabea galdu dute zenbait hirik. Espainiar estatuaren testuinguruan, Botikaren Agentzia Bartzelonari esleitu ez izanak hautsak harrotu ditu. Katalunian ematen ari den salbuespenezko egoerak barne tentsioak areagotu ditu, eta Bartzelonaren hautagaitza irmoa albo batera uzteak gatazka politikoa nabarmendu du.

Nolanahi ere, Europar Batasunaren altzoan kokatu beharreko agentzien helmuga desberdina izango den arren, berehalako *Brexit*-aren galera nagusia Erresuma Batuko hiriburua den Londresek pairatuko du zentzu materialean. Izan ere, bi agentzien artean, 1.000 lanpostutik gora egingo dute alde Britainia Handitik Europar Batasunera. Horrez gain, indar-joko ezberdinak ematen ari dira, Londresek duen finantza erdigune izaera hein batean Parisi egokitu zaiolako². Halaber, Erresuma Batua utziko duten agentziak Europar Batasuneko ekialdean kokatzeko itxaropena agertu bazuten zenbait

¹ Gai Orokorren Europar Kontseiluaren bileraren ebazpena:

<http://www.consilium.europa.eu/en/meetings/gac-art50/2017/11/20/>

² POLITICO hedabideak egindako analisia: <https://www.politico.eu/article/5-takeaways-from-the-race-to-host-eu-agencies-ema-eba-after-brexit/>

governuburuk, baina Bratislava, Bukarest edo Sofia hiri-hautagaitzak lehen itzulian kanpoan geratzeak Europar Kontseiluaren lehentasunak inplizituki ezagutarazten ditu.